



Suedia da benetako Suitza?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Hastings (Ingalaterra) 1949ko irailaren 1a. Ritz Cinema aretoan *The Third Man* (Hirugarren gizona) estreinatu zen, Carol Reed-ek zuzendua eta Graham Green idazlearen gidoia oinarri. Filmeko eszena ezagunenetakoan, Orson Wellesek jokaturako Harry Lime pertsonaiak hauxe dio: “Badakizu beste hark esan zuena: Italian, Borgiatarren nagusitasunak iraun zuen 30 urteetan gerrak, sarraskiak, hilketak... izan ziren, baina baita Michelangelo, Leonardo eta Errenazimentua ere. Suitzan, ordea, maitasuna, demokrazia eta bakea izan dute 500 urtez. Eta zein da emaitza? Kuku-erlojua!”.

Hitzok ez daude Greenen gidoian; Orson Wellesek inprobisatu behar izan zituen, eszenaren denboretara doitzeko betelan gisa. Wellesek berak esan zuen hungariar antzezlan zahar batek hartu zituela, baina James Abbott McNeill Whistler margolaria edota Geoffrey Household idazlea jotzen dira iturri posibletzat.

Esaldi horretan bi akats historiko daude: batetik, kuku-erlojua ez zuten suitzarrek asmatu, alemaniarrek baizik; bestetik, filma estreinatu zenean, mendea pasatxo besterik ez zen Suitzak nazioarteko gatazketan ofizialki parte hartzeari utzi zionetik. Baina, okerrak oker, edozein motatako gatazketan, Suitza neutraltasunaren sinonimotzat dugu.



Suitza neutraltasunaren eredutzat daukagu, besteak beste, *the third man* filmeko eszena honek agerian uzten duen moduan.

2021etik atzera abiatuta, zehazki 206 urte dira Suitza beste herrialde baten aurka gerran ez dagoela. Napoleondar Gerretan parte hartu zuen Alpeetako estatuak eta, beraz, 1815eko Vienako Batzarrean utzi zion ofizialki nazioarteko gatazketan parte hartzeari. Suediak, ordea, urte bat gehiago darama “bakean”; Vienako Batzarra abiatu baino bizpahiru hilabete lehenago, 1814ko abuztuaren 14an bake ituna sinatuta amaitu zen

Suedia eta Norvegiaren arteko gerra. Beraz, hilabete batzuren gatazketatik, benetako Suitza Suedia dela esan daiteke.

Edo benetako Suitzarik ez dagoela. 200 urtetan bi estatuek beste estatu bati ofizialki gerra deklaratu ez arren, Suitzak, besteak beste, hiru asteko gerra zibila izan zuen 1847ko azaroan, eta Suediako armadako hainbat soldaduk alemaniarrekin batera egin zuten borroka Bigarren Mundu Gerran. ●



Asiako gazteluen txanda

Duela urtebete, Budget Direct australiar aseguru etxearen enkarguz, diseinatzaile eta arkitekto talde batek Europako zazpi gaztelu digitalki berregin zituen eta zaharberritze prozesu birtuala GIFen bidez zabaldu zuen.

Orain, gauza bera egin dute Asiako sei gaztelurekin: Iraneko Alamut gazte-

lua (irudian), Beijingeko Udako Jauregi Zaharra, Japoniako Hagi eta Takeda gazteluak, Afganistango Ghazni zitadela, eta Indiako Raigad gotorlekua. Egun hondatuta dauden eraikinak berreginda ikusteko eta horiei buruzko informazioa eskuratzeko aukera dago aseguru etxearen blogean. ●